AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

480

1822/2011 EBAZPENA, abenduaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, M.ª Luisa Merino Hernández andrea Gipuzkoa Mendebaldea eskualdeko zuzendari medikoaren kargutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 9ko 5711/2009 Ebazpenaren bidez, Gipuzkoa Mendebaldea eskualdeko zuzendari mediko izendatua izan zen M.ª Luisa Merino Hernández andrea.

Zuzendaritza Nagusi honek ikusi ditu ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikagarriak diren gainerako xedapenak, eta

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– M.ª Luisa Merino Hernández andrea Gipuzkoa Mendebaldea eskualdeko zuzendari mediko kargutik kentzea eta egin duen lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko abenduaren 16tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Gipuzkoa Mendebaldea eskualdeari, Gipuzkoa Ekialdea eskualdeari eta Giza Baliabideen Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 9a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.